



MENDIRUNTZ

Neure adiskide Karmel-mendi'ri.

Argidiriak mendi-tartetik dirdira dagi;
Atsegin dira zelayak;
Eguzkiaren ufegofizko izpi me-meak
Argitu dauz goi-aldiak.

Mendiko gentza, basoko poza eta zoruna
Beti izan yataz gogoko;
Baita bafuan gogo bizia sortu be egin yat
Arin bertara igoteko.

Ardi zuriak egiñiriko bide-zidofez
Tontor gañeruntz ni noya,
Bere burua gora ta gora ortze urdiñaz
Bat egitera lez doya.

Betik goraño gal-zori askoz josita dira
Bere lepazur zofotzak,
Baña bein ara igon ezkeru poz-atsedenez
Asetzen ditu biotzak.

Aldapan gora arisku orok beraturikan
Igoten daunak mendia,
Gero an goyan, tontor gañean, aurkituten dau
Maitasunezko kabia.

IGOTZ-MENDI.

